

BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko abenduaren 18an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko abenduaren 12ko datarekin, BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. (BIMEP)ren Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea.

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
 - *BIMEP/19/001. BiMEP-eko saiakuntzako eremuko balizaren obra hila eta biziaren mantentze prebentiboa eta zuzentzailearen kontratua.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *2020 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.*
4. *Beste gai batzuk.*
5. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *BIMEP/19/001. BiMEP-eko saiakuntzako eremuko balizaren obra hila eta biziaren mantentze prebentiboa eta zuzentzailearen kontratua.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, eabazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

2. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei BIMEPek esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

3. 2020 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.

Batzordekideek 2020ko Kontratazioaren Urteko Planaren proposamena aztertu eta onartu egin dute, eta kontratazio organoari bidaliko zaio ebazpen arrazoitua eman dezan 2020ko Kontratazioaren Urteko Plana onartuz, egokitzat jotzen baldin badu.


4. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.


5. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A.ko Kontratazio Batzordeko presidentea eta idazkariak izenpetu dute.



Enrique Monasterio Beñaran jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria